Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, EIBARKO UDAL KIROL-INSTALAZIOETAN JARDUERA FISIKOAREN ORIENTAZIO-ZERBITZUA ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEKIN ETA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio teknikoen agiri honen xedea da baldintzak ezartzea EIBAR MOGIDU estrategiari atxikitako orientazio-zerbitzuaren bidez jarduera fisikoa sustatzeko programa kudeatzeko eta koordinatzeko laguntza teknikoko zerbitzua esleitzeko eta ondoren emateko, baldintza-agiri honetan eta administrazio-klausula partikularren agirian zehazten den bezala.

2.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Aholkularitzako eta orientazio pertsonalizatu eta indibidualizatuko zerbitzuak lehentasunezko arreta emango die arrisku-faktoreak edo patologiak dituzten eta Eibarren erroldatuta dauden pertsona ez-aktiboei, bai eta isolamenduagatik edo gizarte-bazterkeriako arriskuagatik arreta handiena behar dutenei ere.
Aholkularitza-zerbitzu honek ez du barne hartuko arreta pertsonalizatu edota presentzial jarraitua behar duten kasu indibidualak ebaztea, ez eta ariketa fisikoarekin loturarik ez duten alderdi medikoak edo osasun-alderdiak artatzea ere.
Zerbitzu honi atxikitako langileek entzute aktiboa erabiliko dute jokabide-aldaketa ahalbidetu dezaketen determinatzaileak ulertzeko, Mugiment-Pertsona Aktiboak-ek proposatzen duenarekin bat etorriz, eta Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak sustatzen duen jarduera fisikoaren orientazio-zerbitzuen antolamendu-ereduaren arabera (https://labur.eus/NFz2p); lanerako jarraibide orokor hauek hartuko dira kontuan:

Orientazio-zerbitzua:

Aholku ematea, orientatzea eta jarraipen pertsonalizatua, banakakoa edo kolektiboa egitea patologiak prebenitzeko jarraibideei buruz, saihestu beharreko jokabideen eta ohituren tipologiari buruz, sustatu beharreko kirol-jardueren eta ariketa fisikoen tipologiari buruz, eta ariketa horiek ingurune hurbilean benetan eta sistematikoki praktikatzeko aukerei buruz.

.

Jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenerako "Eibar Mogidu" zerbitzura bideratzeko protokoloak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, tokiko, eskualdeko eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzu eta –arloekin, gizarte-zerbitzuekin, eta hezkuntza-eragileekin batera.

Erregistratzea Udalak egindako antzeko ikerketa edo azterketetatik eratorritako datuak, hala nola tokiko populazio-taldeetan osasunarekin lotutako egoera fisikoaren neurketa zaintzeko sistemen eremuan.

Eibarko osasun-zentroetako osasun-langileak edo, erreferentziako zentroko langileak bultzatzea, dauden bideratze-kanalak erabil ditzaten, jokabide sedentarioak edo profil inaktiboak dituzten erabiltzaileak orientazio-zerbitzura bidera daitezen.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **4e2e45f365c2235d6306c4900029c954ba96fbe5** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500002220** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
YURI EGAÑA OLANO	**16/05/2025 11:44:17**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Horretarako, langile horien eskura jarriko ditu deribazioa egiteko gaitutako bitartekoak, bai eta “Osasun-zentroetan esku hartzeko gida” ere, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak argitaratua (https://nabur .eus/bSC1n).

Jarduera fisikoaren eta osasunaren sustapeneko jarduerak ematea, honako zerbitzu hauek lotuak: Mugigelak (osasun-gelak eta ariketa fisikoa), Ibilixan programa (ibilaldi osasungarriak), tailerrak, eta abar.

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari buruz eskatzen diren datuak sartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren aplikazioan, datu horien jarraipena egiteko.

Zerbitzua ematean sortutako datu guztiak behar bezala erregistratu eta elikatuko dituzte enpresa adjudikazioduneko langileek, eta Excel formatuan eman beharko dizkiote Eibarko Udaleko Kirol Sailari, denboraldi bakoitza amaitu ondoreren.

Aholkularitzaren edukiak eskura dagoen ebidentzia onenean oinarrituko dira, eta Eibarko biztanleriaren ezaugarri berezietara egokituta egongo dira. Eibarko Udalak eskatu ahal izango ditu edukiak lantzeko erabilitako iturriak.

Aholkularitza-zerbitzuak unean-unean erantzungo die zerbitzuaren telefono-zenbakira telefonoz egindako hitzordu-eskaerei, bai eta posta elektronikoz mogidu@eibarkirola.eus helbidera bidalitakoei ere.

Azkenik, erakunde adjudikaziodunak proiektuaren etengabeko ebaluazioa egingo du, eta estatistika-memoriak eta emaitza- eta gauzatze-adierazleak egingo ditu hilero.

Era berean, zerbitzu honi atxikitako langileek jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko Tokiko Sarea bultzatzeko lana egingo dute, Mugiment-Pertsona Aktiboak-ek proposatzen duen aktibazio komunitarioko proposamenari jarraikiz. Proposamen hori Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak sustatu du (https://labur.eus/gYbKC), honako lan-jarraibide orokor hauekin batera:

Tokiko Sarea

Zeharkako, erakundearteko eta komunitateko sareko lana kudeatzea eta dinamizatzea bizimodu aktiboarekin, ohitura osasungarriekin eta sedentarismoa murriztearekin lotutako beste erakunde, eragile eta kolektibo batzuekin batera, hala nola Osakldetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Tokiko Osasun Zentroarekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin, Debabarreneko ESIko Erakunde Sanitario Integratuarekin, Eibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin, herriko ikastetxeekin eta jarduera fisikoa sustatzeko funtsezkotzat jotzen den beste edozein gizarte-, kirol- eta kultura-eragilerekin.

– Eibar Mogidu kudeatzeko eta koordinatzeko bilerak eta topaketak antolatzeko laguntza teknikoa. Bilera hauek Udalaren barne-koordinaziokoak izan daitezke, instituzionalak, teknikoak, sektorialak edo zeharkakoak, irekiak edo itxiak kanpoko parte-hartzeari; ez da zehazten egin beharreko bilera-kopurua, eta enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko du honako zeregin hauek egiteko erantzukizuna:

o Bilerak antolatzea, honako hauek barne: deialdiaren zirriborroa egitea jarraibideen arabera, deialdia bidaltzea, bertaratutakoen parte-hartzearen koordinazioa eta

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **4e2e45f365c2235d6306c4900029c954ba96fbe5**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500002220**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
YURI EGAÑA OLANO	**16/05/2025 11:44:17**

jarraipena egitea, bilera bakoitzean landu beharreko gaiei buruz eska daitezkeen txostenak aldez aurretik egitea, bilera bakoitzerako behar den informazioa eta dokumentazioa bidaltzea, bileran beharrezko laguntzako langileekin zerbitzu osagarriak ematea, eta bilera horietan idazkari gisa parte hartzea, behar duten udal-zerbitzu eta -sailei laguntza emanez, bilera horietan ezar daitezkeen ondorioen edo ekimenen aktak edo dokumentuak egiteko.

o Egiten den bilera bakoitzaren erregistro digitalizatua egitea, honako hauek barne: deialdiak, txostenak, komunikazioak, aktak edo egiten den bilera bakoitzari buruzko beste edozein dokumentu.

3.- ZERBITZUAREN KOKAPENA

Orientazio Zerbitzua Astelena frontoian egongo da. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du honako neurri hau: Eibarko osasun-zentroetan aurrez aurreko arreta- eta orientazio-zerbitzua gutxienez hamabostean behin egitea zentro bakoitzean. Ordutegia osasun-zentroen aukeren arabera zehaztuko da, batez ere haien espazioen erabilgarritasuna kontuan hartuta.

4.- ZERBITZUAREN ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Ariketa fisikoa egitearekin lotutako aholkularitzak astean gutxienez 10 orduko arreta-ordutegia izango du lanegunetan; 6 ordukoa astearteetan, 11:00etatik 17:00etara, eta 4 ordukoa ostiraletan, 9:30etik 13:30era.
Zerbitzua itxita egongo da egun hauetan:

Jaiegunetan
2 astez Gabonetan eta Aste Santuan
Ekainaren 20tik irailaren 30era.
.
Zerbitzuaren beharren arabera, aldatu ahal izango da ordutegia eta aldaketak behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaizkio enpresari.

5.- KONTRATUARI ATXIKITAKO LANGILEAK:

Adjudikazioaren ondoriozko kontratua gauzatzeko, plegu honen eskakizunen arabera behar bezala kualifikatutako langileak esleituko ditu enpresak, eta hori ziurtagiri konpultsatuen bidez egiaztatuko da.

Kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonal teknikoa pertsona bat izango da, titulazio hau izango duena: Gradua edo Lizentzia Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan.

Gainera, kontratuari atxikitako teknikariek euskararen ezagutza egiaztagarria izan beharko dute zerbitzua eman aurretik: Europako Erreferentzia Esparruko C1 gaitasun-maila.

6.-BALIABIDE MATERIALAK

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **4e2e45f365c2235d6306c4900029c954ba96fbe5**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500002220**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
YURI EGAÑA OLANO	**16/05/2025 11:44:17**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua garatzeko beharrezkoa den material teknikoa eskura jarri beharko du, eta ekipamendu hori kantitatean eta kalitatean mantendu, hitzorduak emateko telefono mugikorra barne. Telefono mugikorreko linearen titulartasuna enpresa adjudikaziodunarena izango da, kontratuaren indarraldian.

Enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da materialak behar bezala erabiltzea eta kontserbatzea, haiek kontrolatzea eta modu ordenatuan antolatzea.

7.- INSTAZIOETAKO LANGILEEK BI HIZKUNTZA OFIZIALAK EZAGUTZEN DITUZTELA EGIAZTATZEA

Instalazioetarako kontratatutako langileek gaitasuna izan behar dute erabiltzaileekin jarduteko EAEko bi hizkuntza ofizialetan Kontuan izanik kontratuaren xedeak berekin dakarrela harreman zuzena izatea herritarrekin, euskara-maila hauek eskatuko dira:
Jarduera fisikoaren orientazio-zerbitzuko monitoreak: C1.
Langile baten ordezkapena egiten denean, ordezkoak puntu hauetan adierazitako eskakizunak bete beharko ditu. Gauza bera beteko dute jarduera honetan parte hartzen duten langile berri guztiek.

8. ZERBITZUAN ARITZEKO NAHITAEZKO KUALIFIKAZIO PROFESIONALA

Zerbitzuan jarduteko eska daitekeen lanbide-kualifikazioari dagokionez, aplikagarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritakoa.

Lege honetan araututako lanbideren batean aritzen diren eta kirol-jardueren praktikan nahitaez fisikoki presente egon behar duten pertsona guztiek lehen laguntzako prestakuntza egiaztatu beharko dute.
Zerbitzuan aritzeko baldintza izango da epai irmo bidez kondenatua ez egotea Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako edozein deliturengatik, bai eta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatutako edozein gizaki-salerosketaren deliturengatik ere.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak langileen inguruabar hori egiaztatu beharko du, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztuz, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.

9.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza-gaitasuna:

Zerbitzua eskaini behar duten pertsonek gaitasuna izango dute herritarrak bi hizkuntzatan artatzeko. Hizkuntza aukeratzeko herritarrek duten eskubidea bermatuko da.

Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta bestelako komunikazio orokor guztiak euskaraz egongo dira, mezu ezagun eta ulergarriak direnean.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **4e2e45f365c2235d6306c4900029c954ba96fbe5** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500002220** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
YURI EGAÑA OLANO	**16/05/2025 11:44:17**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Hala egiterik ez dagoenean, bi hizkuntzetan egingo dira, eta euskarari lehentasuna emango zaio.

Zerbitzuak erabiliko dituzten herritarrekiko erabilera:

16 urtetik beherakoentzako ikastaroak euskaraz izango dira. Saioetan parte hartzen duten haur eta gazteen artean euskara ulertzeko zailtasunak badaude (adibidez, haurra Eibarrera iritsi berria delako), aparteko informazioa emango zaio.

Helduentzako saio eta ikastaroetan, irakasle/monitorearen lehen hitzak euskaraz izango dira beti, lehen harremanean eta eskolen hasieran.

Klaseak euskaraz izango dira, pertsona guztiek euskara ulertzen badute. Ulertzen ez duten pertsonak badaude, tartekatu egingo dira euskarazko eta gaztelaniazko azalpenak.

- Banakako harremanetan, irakasle/monitoreak saioetako hartzailearen hizkuntzan jardungo du. Euskara ulertzen duenari euskaraz egingo dio, eta gaztelania ulertzen duenari, gaztelaniaz.
- Saioen hartzaileei zuzendutako mota guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (abisuak, komunikazioak, ordutegiak, ziurtagiriak, txostenak, diplomak...) euskaraz egingo dira, mezuak errazak direnean eta/edo haurrei eta gazteei zuzenduta daudenean. Bestela, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazko testuari toki nabarmena emanez.

Eibarko Udalarekiko erabilera:

Enpresaren eta Udaleko arduradun teknikoen arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira, ahal den guztietan.

Enpresak aurkeztu beharreko txostenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Hizkuntza-irizpideen jarraipena:

Eibarko Udalak enpresa adjudikaziodunak eskainitako zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratuaren exekuzio-fase osoan, indarrean dagoen legeria betetzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
Baldin eta zerbitzua ematean Udalak uste badu ez direla bete baldintza teknikoen agirian ezarritako hizkuntza-obligazioak, egindako hutsegiteetatik eratorritako prozedura jarriko du abian (kontratua azkentzea edo zigorrak ezartzea, kasuaren arabera).

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **4e2e45f365c2235d6306c4900029c954ba96fbe5** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500002220** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
YURI EGAÑA OLANO	**16/05/2025 11:44:17**